

Egaña, Maia, Amuriza eta Zubeldia San Josetako bertso saioan

12. orrialdea

Bediako Euskera Plana onartuta

Bediako Euskera Plana 2013 urtetik 2016 urtera egongo da indarrean. Lehendik egiten ziran ekintza arrakastatsui jarraipena emongo jakie: udalekuak, Irakurle Kluba, Herri Ondarea eta abar. Euskera bultzatzeko gauza barriak be egingo dira, euskera ikastaroa eta Euskeraz Olgetan, berbarako. **12. orrialdea**



Imanol Arrese pelotari igorretarra Europako Kopara

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

182

2013ko martiaren 19a
hamabostekaria
www.begitu.org

Ttipi-ttapa Arratian

Ubidetik sartuko da Korrika Arratiara hilaren 20an goizeko 11:00k aldera Otxandiorako bidean, eta hurrengo goizean be 09:00ak inguruan barriro pasauko da Ubidetik oraingoan Arratia zeharkatuteko. Hilaren 21ean, eguenean, beraz, hartuko dabe parte arratiarrak euskerearen aldeko lasterketan.

Euskerearen jai handi hau ez da amaituko baina Lemoatik urteten danean. Izan be, herri gehienak korrika herrikoiak eta jaiak antolatu dabez egunean zehar. Korrika Txiki edo Korrika herrikoia egingo dabe, Areatza, Artea eta Zeanurin, berbarako eta Lemoan umeentzako jaiak egingo dabe kiroldegian. Arratian nok ze kilometro ze ordutan egingo dauan be badakargu 7. orrialdean

Kultur ekitaldiak be egingo dira Korrika Kulturale deritxan barruan. Holan hilaren 23an San Josetako bertso saioa egingo da Igorren eta 29an, Laburbira film laburren zirkuitua Igorren be bai.

Korrikaren amaierako festara Baionara joateko autobusak be urtengo dira Arratiatik. Kubulu Euskaltegian emon behar da izena horretarako. **7. orrialdea**



Igorreko ikasleak.




Lemoako ikasleak.

ARRATIA

Bediak eta Lemoak turismoa bultzatuko dabe

Bedia eta Lemoa Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartearen 2013 turismo proiektuan sartu dira. Holan, garapen turistikorako plangintza bat eratu eta martxan ipiniko dabe. Gorbeialdek turismo arloan dituan adituakaz lagunduko dau foroak garatuz eta estrategia komunak landuz, beste gauza batzuen artean.

Turismoak ekonomia sustatzen lagundu leike, ostalaritza eta merkataritza bultzatuz. Eskualde mailako plana da Gorbeialdekoa. **6. orrialdea**



ARRATIA

Edukiontzi barria

Beste edukiontzi bat dago Arratiako herrietako kaleetan, baina hau ez da bertan botatzen dana berziklatzeko, berrerabilteko baino. Honen helburua berrerabilerea bultzatzea da eta bertara jostailuak, liburuak, etxetresna elektriko txikiak, gailu elektronikoak, etxeko gauzak, erropea, oinetakoak eta beste gauza asko bota daitezke. Herri bakotxean kontenedore bat dago eta Igorre eta Lemoan bi. **6. orrialdea**



DIMA

Baltzolako saguzarrak berreskuratzeko itxidurak koban

Baltzolako kobetan galzorian edo egoera zaurgarrian dagozan lau espezie saguzarren koloniak berreskuratzeko diru laguntza bat jaso dau Dimako Udalak. Itxidurak egingo dira saguzarren habitat-a jentearen presinotik babesteko. Baltzolako paleolitikoko aztarnategi arkeologiko garrantzitsuenak be babestuko dira. **8. eta 9. orrialdeak**



IGTIE

KONTUZ, ASIAR LIZTORRA GURE ARTEAN!!

Vespa velutina deitutako asiar liztorren etorreraz entzun dogu azken urteetan, jarraipen zehatza egin jako, bere hedakuntzearen barri izan dogu eta azkenean heldu da. Bordeleko (Frantzia) portuan sartu zan 2004 urte akaberan Asiatik etorren merkantzi baten eta urtero urtero mendebaldeko bidea hartuta kilometroak egiten hasi zan. Lehenengo Euskal Herriko iparralde, ostean Gipuzkoa, eta heldu da gurera, igazko udazken eta neguan hainbat abisu emon dira

Bizkaian, Arteakoak kasu. Asiar liztor hau hemengo liztorren (*vespa cabro*) nahiko antzekoa da, tamainaz apur bat txikerragoa eta kolorez baltzagoa baina erleakazko askoz be erasokorragoa. Liztor honeek udabarrian hasten dira kumutzen eta guztiz indartuta dagoz urrietarako (orduak da eraso bortitzena, erleak dira elikagai garrantzitsuena), erregina barriak jaio eta ziklo barria hasten da hurrengo udabarrian. Arbola handitan egiten ditue

normalen kabiak, pelota handiak izan daitezke saski-baloi baten antzekoak. Oso gatxa izango da izurri honegaz amaitutea eta alkarregaz biziten ikasi beharko dogu baina bere erabateko suspertzea ebitau behar dogu, kaltea ikaragarria izan daiteke eta. Epe ertain-luzera biodiversidadean kalteak eragin daitezke, gogora ekarri daigun erleak dirala polinizatzaile nagusiak.

Beraz holangorik ikusi ezkerro jarri kontaktuan base gorria zein basozainakaz parte emoteko eta suhiltzaile eta erlezainen alkarregaz alkarlanean zer egin ebazteko. Danon ardurak danon artean ondo konpartiduak.



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Martiazen 18tik 24ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxan
Martiazen 25etik 31ra
Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Aprilaren 1etik 7ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioarrik ez dago.

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpuri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Clara Luja Azpuri eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjauregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Umeen zentzune etxean entzune

- Ama/aita, zergaitik ez zara joan azken asteetan etxean hainbeste ensaiatu dogun jantza ikusten?
- Semea/alabatxoa, Guraso Elkar-tekoak inauterietako egunean be lanean ibili behar izan dogulako.
- Eta gaur gabaz zergaitik ez deustazu ipunik kontauko?
- Guraso Elkarteko batzarra daukadalako.
- Jopeeee, eta zertarako egiten dozu hori ba?

Zergaitik inplikau? Gatxa da benetan holangoari erantzutea, seguruenik alabeari/semeari emongo deustadazan erantzunak oraindino ez dauzalako ulertuko.

Baina ahal izan ezker esango neutsan: euskal eskola publikoaren defendatzaile sutsua nazalako, gurasoak be oso garrantzitsuak garalako eskolearen funtzionamentuan eta gure inplikazioak "nire seme-alabaren interes partikularren gainetik" egon behar daualako, holan

etorkizuna eraikitzen dalako eta danok irabazten dogulako.

Gure herriko eskolak eta sarritan profesionaltasun ezin-hobeak erakutsi daben irakasleak eskatzen deusten laguntzea emoteko prest egongo nazalako beti, guk eta gure jarrerak hurrengo belaunaldien izakerea zertuko dau-lako, eta besteakaz gauzak sortu eta gitxi batzuen kalte gehiengo batek inauterietako ikuskizuna ondo ikustea gurago dodalako.

Bakotzak gure balioen eskala propioa dauka eta egitekoak norbere kontzientziaren inguruan egiten doguz.

Lehentasunak: bakotzak be-reak! Akabo.

Kuriosoa benetan, zergaitik ez dogu irakaslearen murrizketen inguruko eskutizirik irakurri BE-GITUN? Inauterietako ikuskizuna ondo ikustea garrantzitsuagoa ete da? Baina klaro, hori beste kontu bat da... edo ez? Umeen zentzune etxean entzune. Beinke baietz!!

INAZIO ZUBIZARRETA GURASO ELKARTEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Huna



Zer da huna? Hazurrak barruan daukan substantzia (úne, ahoskatuta). Batuaz, gun eta hezurmuin be esaten da. Gure zaharren denporan, huna oso janari gozoa eta preziatua zan. Badago, gainera, Arratian hun berbeagaz egindako esakerea: "hunak atera". Zentzu figurauan erabiltzen da eta zera esan gura dau: eskuartean erabilitako zezeri txispak ateratea; esate baterako, "Jonak motozerreari hunak atera deustaz".

ERETXIA

Salerosketea ala alokairua?

Azken urteotan etxebizitzaren gaineko merkadua aldatzen joan da egoera sozio-ekonomikoa aldatuz joan dan heinean. Momentu honetan banketxeak emoten dituen finantzazino baldintzak ez dira bape malguak, hainbat betekizun eskatzen ditue erosketa batetarako dirua aurreratzeko eta egoera honen aurrean, familia edota personen ohiturak derrigorrez aldatzen joan dira, nabarmen gainera azken hiru urteotan.

Finanziazinoa lortzeako errez-tasunak emoten ziranean, etxebizitzaren erosketak eguneroko ekintza moduan ikusten ziran gure inguruan eta merkaduan oro har. Egun aldiz, salerosketak ez-ohizko bihurtu dira faktore desbardinak dirala medio (enpleguaren jaitsiera, familien zorpetze altua, etorkizun ekonomikoaren gaineko bildurra, eta abar) eta lehen salerosketa jarduera horreen parean topetan genduzan alokairuak, orain indarra hartzean dabiz.

Egia da, behinik behin, etxebizitzaren merkaduan prezioak nabarmen jaitsi dirala. Orain dala bost urteko datuak alderatzen badoguz egungo prezioak, gure inguruan benetako aukera onak topau geinkez. Arratiako bailaran etxe eder bat erosteko aukerea dago 300.000€ ingurugaz (orain dala bost urte diru kantidade hori pisu bategaitik ordaintzen zan) edota 180.000€ bueltan pisu polit bat erosi daiteke. Gainera, egoera latzak eraginda, saltzaile eta eroslearen arteko prezioaren inguruko alkarrizketa gehiago dagoz, prezioak normalean negoziagarriak izaten diralako.

Baina noski, persona bakotxaren inguruan egoera konkretu bat dago (eguneroko gastuak,



ALAITZ BIRIZUELA ZELAIA

Larrea Inmobiliariako langilea

noizbehinkako gastu ez-ohikoak, autoa eukiteak dituan gastuak, umeak eragiten dituen gastuak, sendagaiak, kapritxoren bat edo beste, eta abar) eta beti ez da

posible izaten etxebizitza bat erostea nahiz eta prezio egoki bat topau. Batzuetan ez doguzalako baldintza ekonomikoak betetzen banketxeen ikuspuntutik, bestetan guk geuk geure buruari freno ipinten deustagulako eta nahiago dogulako itzarotea egoera sozio-ekonomikoa bare-tu arte, eta abar.

Orain arte gure lurraldean ez da alokairu merkadu indar-tsu bat existidu, agian, ohitura fal-teagaitik, edota errenten prezio altuagaitik, edota guran barnera-tua daukagun "eukiteko" filoso-fiagaitik. Zenbat aldiz entzun ete dogu: "alokairua hilerok hilerok ordaindu eta etxebizitza ez da inoiz nirea izango! Hobe erosteko aukerea izango baneu! Alokairuan egotea dirua botatzea da!". Baina apurka-apurka gauzak aldatzen dagozala ikusten dogu eta Europako beste herrialde batzuetan normala dan alokairu sistema, gurean be lekua hartzean dabil.

Gaur egungo merkaduan, krisi famadu eta zoritxarrekoak eraginda, alokairu eskeintza handiagoa dago. Jaube asko euren etxebizitzak saldu ezinik dagozanez, etxe honek salmenta merkadutik aparte, alokairu merkaduan ipintea be ebatzi dabe. Honela izanda, alokairu eskeintza handitu egin da, kompetentzia be nahiko handituz eta ondorioz errenten prezioak be behera egin dabe. Gainera figura juridiko ohikoa bihurtzen ari da erosteko aukereagazko alokairu deritxana, non alokairu bat ordaintzeak salerosketarako bidea be zabalik ixten dauan eta badirudi alde biak, alokatzen dauana eta alokairuaren jaubea lasaiago ixten dituala, batek ez daualako "dirua botaten" dau-naren sentsazinoa eukiten eta besteak saltzeako posibilidatea gertuago ikusten daualako.

Orain, bakotzak egin daiala bere aukeraketea, betiko moduan egoereak ixten gaituan neurrian. Zorte on!

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,
euskeraz eginez

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL CONTRACTS

LUMATUTEN



**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA**

Zeberioگانeko argia

Zeberioگانeko Bertsuten-eko Akesolotarrak kontau eus-tienez, antxina be antxina, mila eta sarpireun eta pikuan, antza, han, Bilbotik harantzako itsasoan, itsaso txarra egon eta galemea agertu jakien seguru peskadore batzuri. Itsasoa hase-rre gorrian sugertatu jakien eta dana ilun egoanez, galduta ebil-zan seguru peskadoreok euren bizia galtzeako gixiren faltan.

Halangoren baten, zeruko iluntasunaren erdian, inoz ikusi bako argi aparteko bat barrunte-tan ei eudien. Orduan, barkuko patrioiak, hartu sextantea deritxan tramankulua eta kalkuloak egiten hasi zan zelanbaist barkua errukarri ibili arren, olatuak irunsi beharrean han itsaso handian.

Ibili eta ibili, sextante horrieri eskerrak, haren argiaren direkzinoan ahalak egin eta gero, lograu eudien lograu be Bilboko

portura ailegetea eta euren bizia salbetea.

Handik geroagora, sustosartua kendu eta gero, patrioiak sextante-agaz egineko kalkuloatik, ha argia agertu zan lekua topetan joan ziran peskadoreok. Oinez eragoioen zoli-zoli eta kalkuloak esaten eutsien lekura ailegau ziranean, ene! justo-justo Zeberioگانeko Amabirjinearen eleiza gane-ganea. Haxe indiketan eutsien, seguru, egineko kalkuloak, holangorik? aitearen eta semearen!

Ikereagaz egon arren, poztu egin ziran eta milagrotzat hartu eudien ha argi apartekoa agertutea galemako itsaso txar eta zeru ilunaren bitartean.

Horretara, arkal hartuta peskadoreok, hiru promesa egin eutsiezan Zeberioگانeko Amabirjineari euren bizia salbeteagaitik. Bai, hiru urterako hiru promesa eta hiru erregalu, urte bakotzeko bat. Eta halantxe egin be egin eudien.

Lehenengo urtean, urregorritz bordatuko mantu bat erregalau eutsien Zeberioگانeko Amabirjineari. Bigarren urtean, urregorritzko medalloi eder bat Zeberioگانeko Amabirjinearen mantu gainean samatik eskegita iminteko. Eta hirugarren urtean, hiru barkutxo, ondo eginda eta ondo pintauta Zeberioگانeko Amabirjinearen eleizan sabaitik dingilizka iminteko.

Gaur egun, ez dakigu ha mantua eta medalloia non dagozan, baina, hiru barkutxoetarik bi sikeran, hantxe dagoz Zeberioگانeko Amabirjinearen eleizako okuluren baten hautsez beterik. Zer esango ete leukie hareek aldirateko peskadoreak gaurko egoera ikusi ezketino?

ZERTZEAN



UNAX IRAZABAL

Bizi hitza
Hitza hartuz.
Elez ele, hitza hitz,
kalakan, hitz eta pitz.
Berba hartu eta eman.
Berbaroa, hitz aroa.
Ahoaz,
berbak garoaz.
Elea hirea, nirea eta berea.
Berbaz,
jare behar ditugun hitzez.
Itzartuz
Bizitza.

Hitzari gorazarre

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erudian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Badago Suñan (Zurinagan) txitean-pitean agertu eta desagertu egiten dan laku bat. Aurten, bota dauan euriagaz agertu egin da, betiko lekuan, inoz desagertu ez balitz moduan.

Bertako jenteak sinpatiaz begiratzen deutso eta hainbat urte lehenago bizi izandako bizipenak ekarten ditu gogora. "A! gazteagoa nintzan lakua egon zan azkenengoan" dinoe malenkoniaz.


Urak barriz, ez dauka memoriarik, ez denporearen nozinorik. Umeen modukoa da. Momentua baino ez dau ezagutzen. Baina hain momentu bizia eta bustia!

Argazkia: Ander Gorospe.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
 Ureztaketa instalazioa
 Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
 Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com


Ortodontzia
 Inplanteak
 Estetika
 Marina Urigoitia Aidedkoa
 Odontologoa
 Bidebarri 1, behea
 48140 Igome-Bizkaia
 T. 94 631 50 39
 Kalejua Zerbaita 110
 R.P.S. 21/06


Olaetxe
 OPTICA ZENITUA
 - Graduazinoak
 - Ikusmen terapia
 - Ikusmen gixitua
 - Begiko tentsinoia
 - Lentillen adaptazinoia
 - Kiroletarako betaurrekoak
 Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
 ☎ 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ZEANURI

Udaletxean Tinduf-erako jatekoa batzean dabiz

Erredakzioa

Errefujiadu sahararrai bialtzeko, Zeanuriko udaletxean garban-tzuak, lentejak, azukrea eta arrain-latak jasoten dabiz. Aprilaren 8ra arte eroan daitezke bertara jatekook, 08:00etatik 15:00etara.

IX. Euskal Karabana Bilbotik zezeilan urten zan arren, "dirua dagoanean beste bat be antolatuten da bagilan" Edurne "Sahara"ren arabera, eta beste karabana bat

urtengo dala jakinda, jatekoa bil-tzeari ekin deusie Zeanurin.

"Hamar bat urte izango dira Zeanuriko Udalak Saharari lagunduteko hainbat ekimen ipinten dituala martxan. Aurrekontuetatik 3.000 euroko diru partidea dago horretarako, aurren be bai, nahiz eta aurrekontuak ondino onartu barik egon. Umeak oporretan ekarteari jagokonean, urteetan egin dogu Zeanurin, azkenengo urteetan ez, etxean hartzeako boluntarioak bajatu egin diralako. Eta urtero-urtero hartzean dogu parte Euskal Karabanan jatekoa bialduz" azaldu deutso BEGITURI Amaia Intxaurtza Udalekoak.

Arratian udal gehienak bidaltzen dabe jatekoa Tinduferra edota diru partida bat emoten dabe errefujiaduai lagunduteko.

ARRATIA

Harrera alkartearen aurkezpena

Erredakzioa

Kartzelatik irteteen dagozan ga-beziaz jabetu eta preminak ikusita, kaleratzen diran personai laguntza emoteko helburuagaz

jaio da Harrera Elkartea, Arratiako Herrirak jakitera emon dauanaren arabera. Harrera Elkarteen aurkezpena hilaren 22an, Igorreko Kultur Etxean, arrastiko zazpi t'erdietan izango da.

AREATZA

Bost belaunaldi andra areatzazar

Erredakzioa

Gaur egun, Dimako egoitzan bizi arren, urte askoan Areatzan bizi izan da Josefa Iruarizaga 91 urtekoa. Bere ondorengoak bost belaunalditara heldu dira. Jose-

fak alaba bat, 5 iloba, 7 birloba eta hereniloba 2 ditu. Hereniloba txikerrenak 11 hilabete dauka eta holan andrak osotutako bost belaunaldiko katea egiten da Josefa Iruarizagatik Arene Kintana txikiraino.

Honeek dira katea horren katebegiak. Josefa Iruarizaga, 91 urte; Rosa Mari Etxebarria, 71 urte; Maria Pilar Amara, 52 urte; Maider Alvarez 32 urte eta Arene Kintana urtebeteko umetxo.


Josefak beste hereniloba bat be dauka: Kepa Barrenetxea urte bikoa.



Areatzako Josefa Iruarizaga eta ondorengoak.

IGORRE / ZEANURI

Ondo zahartzen ikasi daiteke



Aktibidadea behar da ondo zahartzeko.

Erredakzioa

"Polito zahartu" izeneko ikastaroa Igorren eta berbaldi-taillerra Zeanurin emoten dabil Itziar Gandia Sortzen Aholkularitzakoa. Igorren 59 eta 74 urte arteko hamabost andrak hartzean dabe parte, astean behin ordu biko saioetan. Ikastaroa zezeilan hasi eta martian amaituko da, 7 saio izan ostean. Zeanurin, barriz, saio bi izango dira: lehenengoa martiaren 11n izan zan eta bigarrena aprilaren 15ean izango da. Lehenengo saioan 16 andra egon ziran eta "sano harrera ona izan dau kursoak" irakaslearen arabera.

"Aurrera egin ahala gauza asko galtzean dira bizitzan, baina aldaketa horreek aukera barriak be eskeintzen dabez. Aukera horreek aprobetxetea da polito zahartzea" dino irakasleak. Gizarteak estereotipo bat ezarri gura deutso edadeko jenteari eta andrak, batez be, zaintza lanai lotu. Aitita-amamak ilobak jagoteko obligazioa daukiela eta behar hori pozik egiten dabelako eretxia zabaldu da gure gizartean. Baina, beharrerako baino aisialdirako sasoi da erretiroa. Hau da, lagunak urteteko, biajeak egiteko, zinera eta kon-

tzertuetara joateko, ikasteko, kirola egiteko, aktibismoarako, zaletasunak garatzeko... Lan egin behar ebenean egin barik itxitako gauza guztiak egiteko, hain zuzen be.

Holan, ikastaro honeen helburuak honeek dira: partaideak zahartze prozesua eta honek dakarzan aldaketa sozial eta psikologikoak onartu daiezala, partaideak aztertu daiezala hartu-emon hurbilakaz daukiezan zailtasunak, baita lana, zaintza eta bizitzan zehar galdutakoa aztertzea eta euren bizitzako baliabide baliotsuak identifiketea bizitzako aro hau kalidadez biziteko.

Andrak bakarrik badagoz ikastaroan, ez da gizonak hobeto zahartzen diralako, Sortzen Aholkularitza andren jabekuntzan espezialdua dagoalako baino, Itziar Gandiaren esanetan.

Jakinmina

Ikastaroen bidez ondo zahartzen ikasi ahal dan ala ez, ez dauka argi Marisol Calzada ikasleak "ez dakit ondo zahartzeko balio ete dauan baina atsegina da ikastaroa. Gustura nago ikaskideakaz eta eskolak entretenigarriak dira". Calzadak jakinminak bultzatuta emon ebalu izena dino.

IGORRE

Aurrekontuak eta urigintza berbagai Igorreztarren Batzarrean

Erredakzioa

Berrogei herritar inguru batzartu ziran Igorreztarren Batzarrean eta bertan Beinat Anzola alkateak 2013ko herriko aurrekontuak eta ze proiektu egingo diran azaldu eban. Ordu eta erdiko asanbladea izan zan eta alkateak herritarrak astean zehar posta bidez Udalera bialdutako gaiak erantzun ebazan.

2013ko aurrekontuak jagokie-nean, kapitulu bakoitzean inportanteena zer zan azpimarratu zan eta proiektu hori egiteko ze diru bideratuta dagoan. Egoera ekonomikoaren barri eta datorren urterako aurreikuspenen barri be emon eban alkateak.

Lehendakari Agirre egitasmoaren gainean be luze egin eban berba batzartutakoak.

LEMOA

Planteamentu barririk ez jaube barriak

Erredakzioa

Cementos Lemonako beharginak martiaren 12an enpreseagaz izan eben bilerea, baina bertan ez zan akordiorik lortu igazko urritik irauten dauan lan gatazka hau konponduteko. Izan be, enpreseak "beharrean hastea eta gero ikusiko dala zenbat behargin behar diran" planteetan dau eta bilera horretan "idatziz emon eben proposamen hau" Javi Amorrortu enpresa batzordekoaren arabera. Beharginak plan industrial bat eta zemendian kaleratutako 34 beharginetatik 17 barriro hartzea eskatzen dabe.

Itzaropentsu egozan Cementoseko beharginak Portland Valderibasek Cementos Lemona CHR konpainia irlandarrari saldu eutsanean fabrika, baina jaube barriak ez dabe "planteamentu barriak egin" eta momentuz ez dabe ez plan industrialik aurkeztu ezta kaleratuak onartu.

Lan Zuzendariagaz bilerak

Hurrengo egunean, Xabier Losantos Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzendariagaz batzartu ziran Cementos Lemonako beharginak. Losantosek prest dagoala laguntzeko adierazo eutsen Cementosekoai eta berandu baino lehen alde biak deituko dituala urtenbide bat bilatzeko jakinarazo eutsen.

ARRATIA

Ernai eta Gazte Danbadaren aurkezpena

Irati Urien

Ernai eta Gazte Danbadaren aurkezpena egin zan Igorren, martiaren 9an. Lizarran jakinarazo zan legez, Ernai deitzean da gazte antolakunde barria. Arratian be taldetxoak sortuteko asmoz eta gogoz, gazte nahikotxo agertu ziran Kultur Etxean. Bideo labur bat ipini eben hasteko. Egituraketearen inguruan berba egiteari ekin eutsien gero. Beharrianak eta errealidadea bera desbardinak dirala ondorioztatu ostean, arratiarrak herriko antolatuko dirala adostu eben. Axular Herriko Taberna bazkaldu eta bertso giroan egon ostean, Ernaiko logoa margoztu eben horman. Arrastian "poteodanbadoia" egin eben. Gazteak herriko ibili ziran karroagaz, Gazte Danbadan joko daben taldeen musika ipiniak eta berau aurkeztuaz.

ARRATIA

Bedia eta Lemoa Gorbeialdeko Turismo Planean sartu dira

Erredakzioa

Bedia, Lemoa, Galdakao, Ugao-Miraballes eta Arakaldo Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartearen 2013 turismo proiektuan sartu dira. Holan, Arratiatik Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Lemoa, Ubide eta Zeanuri dagoz Gorbeialdeko Turismo Planean. Orain, Bedia eta Lemoako udalak Gorbeialdeko turismo arloagaz hitzarmena sinatuta, garapen turistikorako plangintza bat eratu eta martxan ipiniko dabe.

Bedia eta Lemoaren turismoagazko loturea begibistakoa izan ez arren, Iñaki Saenz de la Fuente Gorbeialdeko Turismo arloko kudeake-

ta teknikariaren arabera "potenzial turistikoa daukie, Euskal Herriko herri guztiak lez. Lemoak, turismorako garrantzitsuak diran zerbitzuak ditu, eta Urkiola inguruko eszenaleku ederra. Bediak barriz, landa inguruko herrixka baten baliabideak, landa inguruko ondare arkitektonikoa, ostatu bat, taberna batzuk... Biak dagoz Bilbo eta Gorbeiarako bidean, ondo komunikata. Baina, inportanteena eskualde guztiagaz daukan potentziala azaltzea da. Arratia-Nerbioiko herri bakotzak bere baliabide eta zerbitzuak komunean jarrita, potentzial turistiko handia daukagu Gorbeian. Horretan datza".

Potentzial hori garatutako modua Gorbeialde Turismo Planean sartzea zala pentsatu eben Bedian eta Lemoan. "Proiektu garrantzitsua dalako sartu da Bedia. Gure inguruak jentea erakarteko potentziala dauka eta dagozan azpiegiturak eta zerbitzuak aprobetxatu behar doguz" azaldu deutso begiruri Aitor Sorriketa Bediako alkateak.

"Azken urte honeetan turismoak emoitza oparoak ekarri ditu euskal ekonomiarako. Hori dala eta, Lemoako Udalak herriko garapena bultzatu gura dau, turismoa, ostalaritza eta merkataritza bitartez" Lemoako Udal iturrien arabera. Gainera, planagaz aurrera jarraituteko, Lemoako I. Turismo Foroa sortu dabe. Martiaren 13an batu zan lehenengoz foro hau, "ideak eta ekarpenak bildu eta proposamen turistiko bihurtzeko".

Arratia-Nerbioi Turismo Plana


Abian da turismoa plana eta herriak planaren fase desbardinetan

dagoz. Planean sartzean diran herrien "radiografia" bat egiten dabe lehenengotik, herriak turismo eta merkataritza aldetik daukan potentziala ikusteko. Gero, udaletxeak turismoa garatzeko dituan tresnak eta baliabideak aztertzen ditue. Hirugarren pausuan, herri bakotxean foro turistiko bat zabaltzen dabe, "horretara, biztanleria, alkateak, enpresarioak zein bestelakoak konbidatuta dagoz. Hortik aurrera, plangintza bat eratu eta martxan jarriko da eskualdeagaz batera" Iñaki Saenz de la Fuenteren arabera.

Gorbeialdek, turismo arloan, turismoan adituak diran teknikariak ditu, baita eskualdearen garapen turistikorako aurrekontu bat. "Gure alkateak, herrien partaidetzan lagundu daike foroak garatuz eta estrategia komunak landuz, enpresarioai kalidadezko prozesuetan asistiduz eta formakuntza turistikoa emonaz, herrietako baliabideak produktu turistiko bihurtuz eta horren guztiaren marketina edo sus-

tapena bultzatuz" dino Gorbeialdekoak.

Saenzek turismoak hedabideetan eta gizartean daukan irudi txarra garbitzea ezinbestekotzat jotzen dau. Izan be, "turismoak bizia emoten deutso herriari. Herriko tabernak, merkataritza, ekintza turistikoak zein herriaren kanpoko irudi positiboa eta jasangaria bultzatzen ditu. Turismoa, ostalaritza da, baita merkataritza be. Kanpoko jentegaz gure herrietako baliabide eta zerbitzuen onura konpartidutea da. Eta kanpoko diru sarrerak gora egiten dabenean, biztanleriaren bizi kalidadea hobetu egiten da".



ARRATIA

Berrerabilerea sustatzeko edukiontzia

Erredakzioa

Jostailuak, liburuak, etxetresna elektriko txikiak, gailu elektronikoak, etxeko gauzak, erropea, oinetakoak eta abar jasoteko hamaika edukiontzi ipiniko dira Arratiako udalerrietan, bertan jasotakoa berrerabilteko.

Berrerabilera indizeak hobetuteko asmoz, Arratiako Udalen Mankomunidadeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Garbikerren bitartez, berrerabilteko edukiontzia ipinteko kontratua sinatu eben. Koopera Gizarte Sareak edukiontzi honen ikerketea eta barrikuntzea gidatu ditu eta berak emongo dau zerbitzua. Rezikleta Sozие-

dade Kooperatiboak eta Caritas Bizkaia osotuten dabe zerbitzua kudeatuko dauan Koopera Gizarte Sarea.

Hamaika edukiontzi, 9 herri

Edukiontzi barria mankomunidadeko herri guztietan ipiniko da, Igorre eta Lemoan bina. Bilketea egiteko udalerriko bizilagun kopurua eta ordura arte bildutako ehun-hondakinen kopurua hartuko da kontuan. Holan, Arantzazun, Artean eta Ubiden hilean behin batuko da; Bedian eta Diman, hamabostean behin eta Areatzan, Igorren, Lemoan eta Zeanurin edukiontzian itxitako gauzak astero bilduko ditue.

"Guztirako" edukiontzia

Edukiontzi horretan herritarrak barriro erabilteko aprobetxatu gura daben guztia bota daikie. Edukiontzi bakarrean erabilten ez diran gauza guztiak batuko dira.

ARRATIA

Mankomunidadeak atak zabalduko deutsez bisitariari

Erredakzioa

Zeanuriko Herri Eskolako umeak izan dira lehengoak mankomunidadearen egoitzan bisita gidatua egiten. Bederatzi eta hamar urte bitarteko eskola-umeak egoitza ezagutu eta Josune Gorospe presidentea eta teknikariakaz berba egiteko aukera euki eben martiaren 13an.

Izan be, eskola honek proiektu bat ipini dau martxan ikasleai hur-hurreko erakunde publikoak ezagutzera emoteko, Udala eta mankomunidadea, hain zuzen be.

Lan-proiektu honen ondorioz, mankomunidadeak erakundea jentearengana hurreratu eta ezagutzera emoteko asmoa adieraztu dau.

Sanjosetako bertso saioa
Martiek 23. IGORRE

Andoni Egaña
Miren Amuriza
Jon Maia
Iker Zubeldia

19:00etan lasarte aretoan

IGORREKO UDALA
KULTURALA
BERRIOI BERTSO SAIOA

ZEBERIO

Udal taldeak Xabier Aierdiren aldeko adierazpena onartu dau

Erredakzioa

Xabier Aierdi irakasle zeberioz-
rrak, EHUn matrikulatuko ikasle
deportau bigaz bere betebeh-
ar akademikoak beteteagaitik, pre-
barikazino delituaren akusazioa

izan dau.

Zeberioiko Udalak akusazioa
eta epaiketea bidebakoa jot-
en dauala eta Aierdiri alkartasuna
adierazoten deusala jakinaraz-
o dau adierazpen instituzional ba-
ten bidez.

ARRATIA

II. Enpresen arteko Topaketea Zulaibarren

Erredakzioa

Martiaren 21ean, Arratiako Uda-
len Mankomunitateak eta Gal-
dakaoko Udalak IES Zulaibarren

laguntzeagaz antolatutako Arra-
tia-Nerbioiko II. Enpresen arteko
Topaketea izango da Zulaibarren.
Honen helburua eskualdeko
enpresen arteko kolaborazioa
sustatzea da.

Igaz egin zan lehenengo to-
paketan 32 enpresetako 52 per-
sona batu ziran eta sano ondo
balorau eben partaideak. Aurten,
oraindino emonkorragoak izatea
espero dabe antolatzaileak, AUM
gehitu jako eta, enpresen arteko
kolaboraziorako ekimen honeri.



Zulaibar Lanbide Ikastegia.

ARRATIA

Udalak ipiniko dabez aurten Zugatz Eguneko zugatzak

Erredakzioa

Aurten Foru Aldundiak ez ditu ipi-
niko Zugatz Egunean landatzen di-
ran zugatzak. Orain arte, Aldundiak
banandu izan ditu landareak udale-
tan eta gero herri bakotxean egun
bat ipini, lekua aukeratu eta landatu
izan dira zugatzok. Arratian, dana
dala, ez dabe gura izan urteroko
zugatz landatzeko zitara faltau eta
hainbat udalek erosi dabez landarok
inguruko mendietan landatzeko.

Holan Areatzan, martiaren 23an
ospatuko dabe Zugatz Eguna.
"Aurten beranduxoago, inguruko
basoetan edurra dagoalako oraindi-
no" udal iturrien arabera. Areatzaz-
tarrak, 50 sagar eta 50 gaztain lan-
datuko ditue, 100 landare guztira.

Dimoztarrak be 200 zugatz lan-
datuko ditue Zumeltza inguruan
baina eguna zehaztu barik egoan

BEGITU zarratuteko momentuan.
Lemoaztarrak, hilaren 23an har-
tuko dabez atxurak San Antolinen
zugatzak landatuteko eta zeanu-
rizarrik, bezperan joango dira
Saldropora, atxurak hartuta zuga-
tzak landatzera. Udalak ipiniko ditu
landareak eta autobusa.

"Ume bat zuhaitz bat"

Areatzan, azken urteotan martxan
ipini dan "ume bat, zuhaitz bat"
sensibilizazio kanpaineak jarraipe-
na izango dau Zugatz Egunean. Ho-
rretarako, 12:00etan Karpon deitu-
ta dagoz, 2012 urtean jaio diran
12 umeak, familiak batera, ume
bakotxaren zugatza landatzeko. Zu-
gatz bakotxaren ondoan plaka bat
ipiniko da umearen izenagaz eta
jaiotze urteagaz. Zugatz hori umea-
rena izango da, eta berak eukiko
dau zugatza jagoteko ardura.

ARRATIA

Badator Korrika



Erredakzioa

Korrika birritan pasauko da inoz
pasau ez dan Ubideko herritik,
lehenengoa hilaren 20an izan-
go da eta Ubidetik Otxandiorako
bidea hartuko dau. Hamaikak
pasautxoetan zeharkatuko dau
herria. Bigarrenean ostera Ubide,
Zeanuri, Areatza, Artea, Aran-
tazu, Igorre, Arantzazu, Dima,
Igorre, Lemoa izango da egingo
dauan ibilbidea gurean, hau hila-
ren 21ean, egunez, izango da.
Artikulu honeguz batera topauko
dozuez, gurean nok ze kilometro
erosi dauan eta ze ordutan egingo
dauan galapan.

Antzerkiak eta bertsoak izango
dira protagonista Korrika heltzeako
falta diran egun gitxi honeetan.
Lemoan umeentzako antzerkia,
Igorren bertso saioa, Zeanurin
antxinako jolasak eta Areatzan
berbenea egongo dira Korrika
bezperako eta osteko egunotan.

Umeentzako ekitaldia Lemoan

Korrikari etxon bitartean, hilaren
21ean, Lemoako kiroldegian Pata-
ta Tropikala antzerki taldeak *Pirata
garrapata* ikuskizuna eskeiniko
dau 11:00etan. Antzerkia, magia
eta txotxongiloak erabilten dira
lan honetan. Umeentzako jola-
sak be egongo dira Arraibi plazan
arrastian 17:00etan Zaztaparrak
taldeagaz.

Hilak 21ean Zeanuriko herriak
arrasti-gau pasa ederra antolatu
dau. 16:00etan Korrika Txikia
egingo dabe eskolatik hasita, os-
tean txokolatea jaten daben bitar-
tean, antxinako jolasen inguruan
ibiliko dira. Antxina egiten ziran
joko horreek ez ditue ahaztu gura
zeanuriztarrak eta belaunaldi ba-
rriak jakitun gura dabez.

Areatzan ostera, 22:00etan
gaztetxetik urten, herriko kaleetan
buelta bat emon eta barriro be
gaztetxean amaituko dan Korrika
herrikoia antolatuko dabe Lami-
netxe Gaztetxeoak. Barikuetan
Areatzan ohikoa dan pintxo po-
teoa egongo da, egun horretan
gaztetxean be bai, 19:30ean hasi-
ta. Korrika egin eta gero, txokolate
beroa eta bizkotxoak prest egongo
dira Laminetxen, eta eguna ondo
amaitzeko, berbenea eskeiniko
dau Izargi taldeak.

Film laburrak 29an

Laburbira edo film laburren emo-
naldia be izango da hilaren 29an
Igorreko Lasarte Aretoan 20:00etan.

Km	Herria	Nork	Ordua
1655	Ubide	Ubide	09:03:23
1656	Ubide	Ubide	09:09:23
1657		Ermai	09:15:53
1658		Menditik Desertura	09:22:23
1659		Bediako Sortu	09:28:53
		Zeanuriko Sortu	09:33:00
1660		Areatzako Sortu	09:38:38
		Arteako Sortu	09:43:00
1661		Igorreko Sortu	09:48:23
1662		Lemoako Sortu	09:58:08
1663		Zaztaparrak Aisi Taldea	10:07:53
		Larregi eta Exaixu musika taldeak	10:11:00
1664		Harriketarrak Gazte Asanbladea	10:14:23
1665	Zeanuri	Fraka-zuri Gazte Asanbladea	10:20:53
		Zeanuriko Gazteak	10:23:00
1666		Zeanuriko Eskolea eta Guraso Elkarte	10:27:23
1667		Zeanuriko Udala	10:29:59
1668		Gorbeia Suzien	10:33:14
		Basoainak	10:36:00
1669		Zulaibar Lanbide Ikastegia	10:39:44
1670	Areatza	Ganoraz Euskera Taldea	10:45:44
		Peña Athletic Gorbeako Gurutzea	10:48:00
1671		Areatzako Guraso Elkarte	10:48:44
1672		Areatzako Udala	10:51:59
1673	Artea	Trukutze Txalaparta Taldea	10:55:14
		Arteako Kultur Kirol eta Euskera Taldea	10:57:00
1674		Arteako Udala	11:00:26
1675		Arteako Guraso Elkarte	11:03:41
1676		Aldatuz Plataformea	11:06:56
1677		Gorosti	11:10:11
1678		Indar	11:16:41
1679	Arantzazu	Arantzazuko Bildu	11:22:41
1680		Arginatx Mendi Taldea	11:28:41
		Elizportaleko Gazte Asanbladea	11:31:00
1681	Igorre	Aek-ko ikasleak	11:33:53
1682		Ekin	11:38:26
		Arantzazuko Udala	11:40:00
1683	Arantzazu	Igitie	11:42:59
		Institutuko ikasleak	11:46:00
1684	Igorre	Institutua	11:48:50
1685		Institutuko Guraso Elkarte	11:52:05
1686		Luis Iruarrizaga Abesbatza	11:58:35
1687	Dima	Dimako Sortu	12:05:05
		Dimako EAJ	12:07:00
1688		Luis Prieto Lagunartea	12:08:59
		Txumuluxueta Esku Pelota Elkarte	12:10:00
1689		Dimako Eskolea eta Guraso Elkarte	12:10:56
1690		Dimako Udala	12:12:53
1691		Gaztebarri Jantza Taldea	12:15:29
		Dimako Gaztetxea	12:17:00
1692		Dimako Bertso Eskola	12:20:02
		Andraizea	12:22:00
1693		Axular Kultur Elkarte	12:24:35
		Arratiko Zekorrek Rugby Taldea	12:26:00
1694	Igorre	Batz	12:29:08
1695		Igorreko Eskolea eta Guraso Elkarte	12:33:41
1696		Araluce	12:36:56
1697		Arantzarte Jantza Taldea	12:39:32
		Herrira	12:41:00
1698		Igorreko Udala	12:42:47
1699		Ormazabal	12:47:59
1700		Arratiako Bertso Eskola	12:55:08
		Motxogan Kultur Elkarte	12:58:00
1701		Zertu Kultur Elkarte	13:02:17
1702		Bediako Udala	13:09:26
1703	Lemoa	Lemoako Udala	13:15:56
1704		Lemoako Eskolea	13:20:44
		Durundibarri Jantza Taldea	13:22:00
1705		Lemoa Txirindulari Elkarte	13:24:20
		Cementos Lemoako LAB	13:25:00
1706		Harrobi Futbol Kluba	13:26:56
		Lemoako Esku Pelota Taldea	13:28:00
1707		Ganzabal Mendi Taldea	13:29:32
		Lemoako Abesbatza	13:31:00
1708		Ibaigane	13:32:08
1709		Arratiako Musika Eskolea	13:37:20

BALTZOLA

Saguzarrai esker hainbat hobekuntza egingo dira Baltzolako kobetan

Baltzolako kobetako ekosistema eta ondare arkeologikoa babesteko hiru itxidura ipiniko ditu Dimako Udalak. Holan zenbait barrenbideren erabilerak mugatu egingo dira eta jentek kobetako ekosisteman eragiten dauan presinoa gitxituko da. Saguzarren babes eta ikerketarako 45.500 euro jaso ditu Dimako Udalak IHOBek emonda. Saguzarrak bertako "espezie aterki" moduan funtzionauko dabe. Hau da, honeen habitata babesteko kobearen ekosistema osoa babestuko da. Baita bertako ondare arkeologikoa be.

Erredakzioa

"Orain hiru edo lau urte Udalak Baltzolako karsta eta kobazulo in-guruak erosi ebazan. Beraz, hau udal ondarea da orain" azaldu de-usto BEGITURI Rafa Ugalde Dimako alkateak. Karsta eta kobazuloaren babesteko preminaren jakitun ipini eben Udala Joxerra Aihartza EHUko zoologia irakasleak, Lydia Zapata EHUko arkeologia irakasleak eta beste espezialista batzuek.

"Baltzolan orain saguzar gitxi dago; Euskal Herriko beste zenbait koba garrantzitsutan bezala, azken hamarkadetan bertako giza-presinoa asko emendatu da, eta horrek galzorira eroan ditu saguzar kolonia garrantzitsu asko" dino Aihartzak.

Igaz Joxerra Aihartzak propo-satu eutsan Udalari diru laguntza bat eskatzea IHOBeri Baltzolako fauna zaindu eta babesteko.

Horretarako, hiru itxidura egingo dira. "Barruko galeria batzuk, ga-leria nagusiak ez, (eskalatzaileak eta eskursionistak ibiltzen diran galeriak bardin geratuko dira), baina barrurago doazen galeria batzuk zarratu egingo dira. Itxi-durok burdin tubo horizontalakaz egingo dira. Holako itxidurak Frantzia egiten dira eta hemen be hasi dira egiten. Diputazioa hasi da kobazulo asko zarratuten bertako fauna babesteko eta iker-ketak egiteko" dino alkateak.

Baltzolako arazoetako bat da bertako jatorrizko saguzar bat desagertze dagoala. Itxidura-agaz ahaleginduko dira saguzar mota horren kolonia berreskuratu-zen. Itxidura horreek ipini ostean detektore batzuk be ipiniko dira gizakien presentzia zenbatzeko.

Baltzolako saguzarrak

Guztira bost espezie saguzar

ezagutu izan dira Baltzolan. Ho-rreetatik bat, ipar belarrihandia, aldizkako bisitaria da bertan, normalean basoan bizi da-eta -zugatzetan-, eta ez da beraz garrantzitsua. Beste laurak, aldiz, kobetako saguzarrak dira.

Aihartzak azaldutakoaren ara-bera, 1960-70 hamarkadetan gitxienez lau espezie saguzar bizi ziran Baltzolan, eta horreetako hiruk koloniak osotzen zituen. "Kopuru zehatzak ez dakiguz, baina bakotxetik hamarnaka batzuk bai, eta hareetako baten ehundaka batzuk be bai ziurre-nik. 1980.eneko hamarkadatik aurrera, ordea, kolonia horreek desagertzen joan dira, eta egun ale gitxi batzuk baino ez dira izaten bertan, batzuk hiberna-zino sasoiaren, eta beste batzuk kumatze-sasoiaren.

Ferrasaguzar handia, txikerra, mediterranearra eta koba sagu-



Baltzolako koba.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean

begitu
arratia ubide zeberio

10 urte.

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkarteak, Herriko plaza 24, 48142 Artea



Eskalatzaileak eta eskursionistak erabilten dabezan galeriak ez dira zarratuko.

zarra dira Baltzolan bizi izan diran saguzarrak.

Ferrasaguzar handia da arruntena Baltzolan; kobetan hartzean dau babeslekua, eta gaez so-roetan eta baso ertzetan ibiltzen da batez be, mota guztietako sitsak eta kakalardoak jaten. Gaurko egunean, ale batzuk kumatu be egiten dira Baltzolan, eta adituak esperantzea daukie kobako barrenbide batzuetan lasaitasuna emoten bajako, barrero be bertako koloniak errekupe-ahala izango dirala. Espezie hau "zaurgarri" gisa dago sailkatua EAEn eta Nafarroan, eta babeslekuen (besteak beste koba lasaien) galerea da bere atzerakadearen arrazoi nagusietako bat.

Ferrasaguzar txikerra be bazan Baltzolan orain dala hamarkada batzuk, baina aspaldian ez da holangorik topau. Kobako barrenbide batzuk itxi ezker hau be berreskuratu daiteke" Aihartzaren ustez.

Ferrasaguzar mediterranearra "galzorian" gisa dago sailkatua EAEn, eta honen kasuan be, koba handi eta epel lasaien galerea da desagertzeko arrazoi nagusia. "Honen kasuan gainera atzerakada izugarria izan da Hego Euskal Herrian azken 40 urteotan: Gipuzkoatik guztiz desagertu da, Araban ez da koloniarik ezagutzen, eta Nafarroan eta Bizkaian hainbat kolonia galdu dira. Egun hiru kumatze kolonia bakarrik geratzen dira Bizkaian.

Galdutako kolonia horreetako bat Baltzolan egoan orain dala 30 bat urte, eta hori errekupe-ritea bikaina litzateke. Baina oso gaxa".

Eta azkena koba saguzarra da: egun ale bakarren bat ikusten da Baltzolan, neguan edo udabarran, baina lehen koloniak erazten zituan bertan, hamarnaka edo ehundaka alekoak. Espezie hau ere "zaurgarri" kontsiderau izan da orain arte Hego Euskal Herrian, baina azken datuen arabera EAEn behintzat "galzorian" kategoriara aldatzea proposatu dala dino biologoak.

Itxidurak baina, ez dabez bakarrik galzorian edo zaurgarri diran saguzarrak babestuko. "Kobazuloetan ekosistema oso hauskor eta sentiberak sortzean dira, bertan bakarrik topau daitezkan makina bat animaliatxo eta onddoz osotuak batik bat, eta gehiegizko bisitarien presinoak guztiz hondatzen ditu ekosistema horreek. Zoritxarrez, egun naturan doguzan azken gunee-taraino be jente asko heltzean da edo gara eta horrek neurtu eta mugatu beharreko inpaktu izugarria dauka" dino Joxerra Aihartzak

Paleolitikoko aztarnak

Itxidurak ekosistema babesteaz gainera, Baltzolan dagozan aztarnategi inportanteak be babestuko ditu. Sano aztarnategi inportanteak dagoz Axlora eta Bal-

tzolan. Lydia Zapata eta bere ekipoa urteetan egon dira Baltzolan eskabazinoak egiten. Aztarnategi arkeologikoa babestea eta zaintzea be bada inguru horretan egingo diran lanen helburua.

Baltzolan kronologia paleolitikoko aztarnategia dago. Bertan ehiztari-biltzaileak egon ziran" azaldu deutso BEGITURI Lydia Zapata Euskal Herriko Unibertsitateko arkeologia irakasleak.

Lau urtez egon dira Zapata eta bere ekipoa indusketak egiten Baltzolan. "Sasoi haretako gizakiak jaten zituen ehizkien hondarrak agertzen dira batez be Baltzolan, oreina eta. Industria litikoaren aztarnak be topau doguz, silex eta abar. Aztarna honeek 12.000 urte inguru ditue" dino arkeologoak.

Indusketak egin ostean, igaz ez ziran Baltzolan egon. Izan be, orain topautako material guztia



Joxerra Aihartzak.

ikertu egin behar da. "Material asko dago eta talde handia lanean egon arren, 15 persona inguru, urteak behar izango dira emoitak prest izateko".

Itxidurea, antropologoak El Redil izenagaz ezagutzen daben leku baten egingo da. Itxidurak non egin jakiteko udalekoak Joxerra Aihartzagaz eta arkeologo bigaz joan ziran, Lydia Zapata eta bere taldeko beste batez, hain zuzen be. "Askotan leku ez egokietan sartzean dira eta itxidurak egiteko burdinak. Hatxa edo hariaren gainean ipini behar dira burdinok, sedimentuak ikutu barik" dino Rafa Ugalde alkateak.

Panel informatiboak

Baltzola eta bere inguruan eskursionistak, eskalatzaileak, espeleologoak, mendizaleak, arkeologoak eta inguru eder batetaz gozatu gura daben guztiak ibiltzen dira. Ondarea jagoteko baina aldi berean jenteak lekuaz disfrutau ahal daian, ezinbestekoa da arau batzuk ipintea. Kirol eta aisialdiko jarduerak arautzeko, "badago araudi bat, aurreko korporazioak egin ebana, baina ikerketaren gainean ez dago ezer araututa" dino Dimako alkateak.

Panel informatiboak ipinteko asmoa daukie Udalekoak. "Jente asko joaten da eta askotan zabarra batzean da bertan. Interesgarri izango litzateke sua egiteko aterpetoren bat ipintea. Eta komunak. Parke natural askotan ipinten da egurrezko komunitoren bat. Gitiyeneko hornidura bat ipintea pentsau dogu. Dana dala, gaur egun ez daukagu errekurtsorik horretarako, baina bihar edo etzi ahalegin hori egingo dogu. Panel informatiboak bai, horreek ipintea aurreikusita dago".



Lydia Zapata.

Topautako aztarna
arkeologikoak 12.000
urte inguru ditue

INCOESA

Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

BIZARGINAK

Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu

Bixarra egin eta txukunduten dogu

Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 igorre Manuel ☎ 661 848 793

Orre

FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

L. Agirre, 7.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfno.: 94 632 64 75

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 531 92 00

ESKALADEA

Itziar Zabala dimoztarrak prestau zituan Leioako blokeak

Erredakzioa

Martiaren 8an, Leioako Mendi Taldeak II. Climbing Girl Party (neska eskalataileen jaia) antolatu eban. Itziar Zabala dimoztarrak diseinatu ebazan neskak eskalau behar zituen hamabi desafioak. Aurreko urtean Irati Andak izan eban eginkizun hori.

"Hamabi bide prestau behar izan nituan eta sano gustora ibili nintzan horretan. Jente asko hurreratu zan Leioako Sakoneta kiroldegira. Maila guztietako neskak ibili ziran eskaletan guztien mailarako bideak ipini nebaza-

lako" azaldu deutso BEGITURI eskalataileak.

Danetara, 4 maila egon ziran: 14 urtetik beherakoentzako; Eman (hasibarriak); Eutsi (espe-rientziadunentzako) eta Estutu (PRO!)

Jarduereak txapelketa itxurea izan arren, helburuak beste-lakoak ziran: andren presentzia ikustarazotea holako kirolletan; neskak kirol honetara hurreratzeta eta animetea; gazteagoentzako ereduak sortzea; eta alkar ezagutzea eskaletan eta entrenetan joateko aukera gehiago sortzeako helburuagaz.



Itziar Zabala.

FUTBOLA

Astegoien gazi-goza

Clara Luja Azpiri

Andrazkoen Arratia taldeak Touring CD taldearen kontra izan eban azken partidua eta bi eta huts irabazi eban. Partidua Urbietan izan zan, martiaren hamazazpian eguerdian. Partidu honen ostean Arratia taldeak 38 puntu batzean ditu eta sailkapenaren seigarren postuan dago. Hurrengo partidua, hogetabigaren jardunaldikoa, Urbietan izango da martiaren 23an, zapatuan, 17:00etan eta arratiarrak Barakaldo CF taldearen kontra jokatuko dabe.

Gizonak galdu

Gizonak, barriz, galdu egin eban azken partidua, Mungia A taldearen kontra, huts eta bat. Partidua Urbietan jokatu zan arrastiko bostetan. Hogetaseigarren jardunaldia izan zan eta Arratiak galtzean dauan azkenengo bost partiduetako lehenengoa da. Honen ostean, Arratiak 26 puntu ditu eta sailkapenaren hamargarren postuan geratzen da. Hurrengo jardunaldia martiaren 24an izango da, Union Sport San Vicente taldearen kontra, Barakaldoko San Vicente CDM zelaian, goizeko 11:30ean.

ERRUGBIA

Gureak eskas

Ainhoa Duñabeitia

Atzenengo partidua bietan eskas ibili izan dira gureak. Getxo Artea B taldea izan eban aurrez aurre, hilaren 9an Faduraoko errugbi zelaian. Esan bezala, eskas hasi ziran eta eskas amaitu eban, markagailua getxoetarren menpe egon zan partidua osoan. Etxekoak estreinau eban markagailua, zigor ostiko baten ondorioz. Zigor ostiko horrek emon eutsan hasikerea getxoetarren entsegu festari. Bata bestearen atzetik etorri ziran, 9 hain zuzen be. Atsekabe aurpegiak nagusi arratiarren artean, denporaldiko 8. neurketea galdu eban eta. Suberte txarra be nagusi izan zan partidua honetan, guretako hiruk jokoaren erdian alde egin behar izan eban lesinoakaitik, taldean 13 persona geratuz.

Getxoetarren festa 80. minutuan amaitu zan epaileak norgehiagokeari amaierara emon eutsanean; halanda be, Zekorrek entsegu bat lortu eban. Neurketa horretako azken emoitzea, 65-5 izan zan.

Astegoien honetako zapatuan be, hilak 16, porrota jaso eban. La Unica errugbi taldea izan eban

aurkari, lehen postuan dagoan taldea hain zuzen be. Arrastiz jokatu eban, San Txismeko zelaian, 16:30ean. Neurketa ondo hasi eban iruñearrek, lehen minutuan entsegu bat lortuz. Markagailua aldatu guran ibili ziran gureak, baina ezinezkoa izan zan. Nahiko bardinduta ibili ziran talde biak, entsegu bat gora entsegu bat behera. Partidua bukatzean egoala Zekorrek jokaldi bikaina eta entsegu ederra lortu eban. 5 minutu be ez ziran falta neurketea bukatzeko eta Zekorrek erasoan ebizala, iruñearrak baloia ostu eta entsegua lortu eban, hortxe amaitu zan partidua. 3 puntu behera baino ez joiazan entsegua lortu ebenean. Azken emoitzea 19-29.

Zekorren neurketa hau, 2. faseko azkenaurrekoa izan da. Hurrengoa eta azkena, etetik kanpo jokatuko dabe, Iruña RC taldearen kontra.

Gaztetxoak hobeto

Zekortxoak fin ibili dira astegoien honetan. Domekan izan eban norgehiagoka, hilak 17, Zarautz Lasarte 35 UR taldearen kontra. Epaileak partiduari hasikerea emon eutsanetik kontrolpean euki eban partidua gureak. Gogor egin eban eraso eta jokaldiak entseguan bukatu ebezan gaztetxoak. Neurketa on honen ostean, emoitzea 45-14 izan zan.

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Tfnua 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

umean meda
sein
e-16

Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

L

ARRATIA AUTOESKOLA
karmela eskolaraz zain erakraz

Agirre Lehendakaria 11 48140 Igorre (Bilola)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: unazu@euzkadi.net

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak

Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94

Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRBITZUAK

Gabe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE BIZKAIA

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Auriagera 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

axular
kultur elkarriz

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

AKETEIGIA
GAY & LORA
IGORRE

Emilio Galtia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGI-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONSTRUKTIBO
ONDASUN HIGIEZKINEN
ASIGURATUTAN

Bilbao Arana, 5 Tfnua: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 04 01 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3, 3a Tfnua: 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia Tfnua: 609-79-40-54

ekin s.a.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETA
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturrizt barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

Pinturas Arratia

Javi Morato
Tel. 628 443 992

PELOTEA

Finalerdia eta finala irabazita, Imanol Arrese igorreztarra Europako Kopara

Irati Urien

Martiaren 3an Espainiako Txapelketako finala jokatu eban Imanol Arresek, Nafarroako Imarkoain herriko Iturrondo pelotalekuan. Ohorezko mailan txapeldun atera zan igorreztarra eskuz ba-

nakakoan. Club de Pelota Madrid ordezkatzuz jokatu dau Arresek, txapelketea osorik jokatuten dauan lehenengo aldia. Finalerdietan, Zamorako San Atilano kluba ordezkatzuz jokatuten dauan Luis Cabrerizo Soriako profesional ohiari irabazi eutsan

3-10, 10-7 eta 5-4. Finalean barriz, Irurtzungo klubeko Xuban Armendariz Baraibartarra garaitu eban 8-10, 10-5 eta 5-1 emoitzeagaz. Eskuak lesionauta eukazala eta, geldian egon zan igaz Imanol. Finalean barriro be mindu egin ei jakozan baina ez eutsien garaipena galarazo. Errekuperetan badabil be sano pozik dago orain pelotaria. Abuztuan jokatuko dau Europako Kopea lholdin (Beha Nafarroa), iparraldeko pelotariren baten kontra. Arreseren esanetan: "Irabazteko posibilitadea, badaukat. Orduan, gogotsu nago".



Imanol Arrese.

Jokoetara jokatuten

Txapelketa honetan partiduak jokoetara dira. Hamarreko joko bi dagoz, teniseko set-ak izango balira lez. Biak irabazi ezker, partidua irabazten da. Baina bat irabazi eta bestea galdu ezker, enpatea egiteko hirugarren joko bat dago bostera dana.

MENDIA

Arratiako andrak Lemoatxan

Erredakzioa

Hogeta hamar andra inguruk hartu eben parte Arratiako Andren Mendi Martxearen hirugarren edizioan.

Lemoatxara igo ziran oraingoan. Egurraldiak lagunduta, giro ezin hobean egin eben mendi bueltea. Bajatuken, Ondarru eta Ermuako andrabandak alaitu zituen Lemoako kaleak.



Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Balentziak: A1, A, B1, B
Luhandikuri Agirre 31
Telefono: 94 631 73 32
48140 IGORRE (Nafarroa)
garantxe@ovskol.net

HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Zeberio)
Tel.: 94 631 72 56

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

FISIOTERAPIA

Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUren harpidedun * Deitu 649 979 115 telefonora eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegiari eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarrizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€ edo 75 Euroren truke

HAMABOSTALDIA

Kultura hamabostaldiaren bigarren astean, Korrika protagonistea

Erredakzioa

Igorreko kultura hamabostaldi honetako bigarren astean Korrikak hartuko dau protagonismoa; izan be, Korrikaren inguruan hainbat ekimen kultural antolatuten dira. Holan publiko zabalari egingo diran ekintza gehienak zelan edo halango loturea daukie Korrikagaz.

Ekitaldiok Korrika bera, *Ahate-txo Itsusia* antzezlan eta San Josetako bertso saioa izango dira. Honeetaz gainera, Institutuko ikasleak sexualidadeari buruzko zineforuma eta kontzertuak izango ditue.

Birritan pasauko da Korrika Igorretik eta Institutuko ikasleak eta beste herritar askok parte hartuko dabe geure hizkuntza eta kulturearen aldarria dan lasterketa honetan. Eskolako Guraso alkarteak, umeentzako eskulan tailerrak eta

jokoak be antolatuko ditu.

San Josetako bertsoak

Korrika kulturalaren barruan sartu dabe aurten Igorreko San Jose-

tako bertso saioa. Martiaren 23an izango da 19:00etan eta Andoni Egaña, Miren Amuriza, Jon Maia eta Iker Zubeldiak kantauko dabez bertsoak Lasarte Aretoan.



Kultur hamabostaldiko kartela.

EUSKERA

Ahize-AEK-k egingo dau Batzeko euskera planaren jarraipena

Erredakzioa

Batz S Kooperatibak hitzarmena sinatu dau Ahize-AEK Hizkuntza Aholkularitza Zerbitzuagaz euskera planaren jarraipena egiteko.

BATZ Arratian euskerearen normalizazioan jarduteagaitik aurrendari eta eredu da. BATZ Kooperatibea 2000. urtetik dago bere euskera plana garatzen eta

aurten BATZek Ahize-AEKren laguntza izango dau bide horretan. Ahize-AEKren teknikariak helburuak lortzeako, lan-ildoak, erabilera, ezagutzea, motibazioa eta erakundetzea landuko ditue.

Egun gurean, Ahize-AEK-k Lemoako Udalean eta Areatzako Udalean hizkuntza aholkularitza zerbitzuak eskeintzen ditu, berbarako.



Xabat Pelaez, Saioa Loizaga, Ander Bilbao, Mertxe Mujika, Miren Madariaga eta Koldo Ugalde.

EUSKERA

Euskera plana martxan Bedian

Erredakzioa

2013 urtetik 2016 urtera indarraldia izango dau Bediako Euskera Planak eta 2012a hausnarketarako emon ostean, 2011n amaitu zaren jarraipena izango da oraingo hau. Lehendik egiten ziran ekintza arrakastatsuai jarraipena emongo jakie, udalekuai, Irakurle Klubari, Herri Ondareari eta abarri; baina euskera bultzatzeko gauza barriak be egingo dira: euskera ikastaroa eta Euskeraz Olgetan, berbarako.

Zezeilan onartutako plan honen proposamenetan parte hartu eben herritarrek. "Etxe guztietara karta bat bialdu eta dozena bat lagun inguru etorri ziran batzarrera,

ideak eta proposamenak emoten. Plan proposamena eginda egoanean beste batzar bat egin genduan jente horregaz, udalbatzara eroan aurretik" azaldu deutso BEGURI Igone Etxebarria Bediako euskera zinegotziak.

Umeai begirako ekintza ugari

Euskera Plan baten helburu nagusia beti izaten da euskereari bultzadea emotea. Plan honek jasoten dituan ekintza asko lehendik datoz. Holan, Bediako Udalak antolatutako udalekuetan, gazte askok hartzean dabe parte, euskeraz izaten dira eta hurrengo urteotan be antolatutea aurreikusten da.

Umeentzako eskeintza zabala

egoten da Bedian liburutegia eta ludotekearen bitartez: tailerrak, ipuin kontalaria, antzerkia eta abar. Nobedade moduan, Euskeraz Olgetan jarduerak sartu dabe plan honetan, astean behin 12 urte arteko umeakaz jolasak eta olgetak euskeraz egiteko.

Igaz Herri Ondarea batu eben Bedian. "Toponimiagaz hasi ginan orain urte batzuk eta euskera planetik bertatik etorren hau. Herriko toponimia batu eta horren emoitzea mapa baten argitaratu eta etxe guztietan banandu zan. Hortik segiduta hasi ginan herri ondarea batzean. Hori igaz batu genduan eta sarean ipini eta aurten horregaz jarraituko

dogu, argitalpen bat egiteko gogoia daukagu" dino Etxebarriak

Urtero egiten dan kantu bazkarian be edade guztietako jentea batzean da, guztira ehun persona inguru.

Ikastaroa eta Irakurle Kluba

"Aspaldian ez da egon baina aurten euskera ikasteko talde bat ipini da martxan. Gatxa da jente nahikoa batzea talde bat egiteko: maila berekoa eta ordutegi berean. Baina aurten osotu da taldeko bat hasi-barrientzat" dino zinegotziak.

Irakurle Klubak be euskera planetik urten eban. Urtean lau bat saio egiten dira eta idazle bat joaten da bertara bere obraren gainean berba egiten. Ekintza hori aurreko planean hasi zan eta aurrera doa. Nahiko talde fijo batzean da, 12-15 persona.

BERTSOLARITZEA

Finalerako pase barik Arratia

Irati Urien

XXI. BBK Sariketako finalerdietan Durangaldearen kontra ibili ziran etxeoak, Durangoko Institutuan. Nerbioz betetako saioa izan zan baina fin ibili ziran halanda be gazte danak. 19 urtera artekoetan 9 puntuko aldea lortu eben gureak, eta 25 urtera artekoetan, Durangaldekoak irabazi eben 11 puntugaitik. Gauzak holan, hilaren 22an Durangaldeak eta Ipar Uribek jokatuko dabe finala Bilboko Kafe Antzokian, arrastiko 19:00etan.



Bediako Udala.

Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola · Merkataritza estabazimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak · Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak

Arratian kultura bultzatzen

indar

instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsi@indarsi.es

LEHIAKETEAK

II. Narrazino lehiaketea Lemoan

Erredakzioa

Igaz abiatutako 18 urtetik gorakoen-tzako euskerazko narrazino lehiaketa honen edizinoan parte hartzeako epea zabalik dago apirilaren 23ra arte. Gaia librea da eta partaideak narrazino bakarria aurkeztu ahal dabe.

Lanen gehieneko luzeerea sei foliokoa da eta Lemoako udaletxean aurkeztu edo kultura@lemoa.net hel-

bidera bialdu behar dira narrazinoak.

Sariak

Lau sari emongo ditu Lemoako Udalak. Lehenengo saria 250 eurokoa da, bigarrena 150ekoa eta hirugarrena 100 eurokoa. Beste bat be egongo da Lemoako bertako lanik onena sarituteko. Diploma bana be jasoko dabe irabazleak. Sariak maiatzean bananduko dira.

BERBALAGUN

Berbalagunak Zeberion

Erredakzioa

Aprilean Berbalagun proiektua martxan ipiniko dabe Zeberion. Izena apirilaren 7ra arte emon daiteke udaletxean. Euskera praktikau gura dabenak euskeraz ondo dakian bagaz ipinten ditu kontaktuan egitasmo honek, astean behin, talde txikerretan euskeraz egin daien.

Orain dala hogeit bat urte, Berbalagun programea martxan hasi zan Donostiako urian. Geroztik egitasmoa hazten eta zabaltzen joan da eta Arratian be, hainbat talde dagoz.

"Ikasitakoa praktikan ipintea beharrezkoa dala ardatz hartuta,

egitasmoak euskera ikasi eta praktikau gura dauan jentea euskeraz dakien beste personakaz alkartzen ditu asteroko hitzordu baten. Antzeko zaletasunak eta interesak dituen personakaz talde txikerrak osotuko dira partaideak aukeratu-tako egun, ordu eta lekuan. Hori bestelako ekintzez osotuteko aukerea egongo da: ikastaroak, txangoak, emonaldiak eta abar" dino Anjela Ricok, Aiaraldeko Berbalagun dinamizatzaileak.

Proiektu hau AEK-k kudeatzen dau eta zerbitzua dobakoa da. Baldintza bakarria oinarizko euskera maila izatea da.

ZIENTZIA

Fisika kuantikoa danontzat Areatzan

Areatzako Kirol eta Kultura Batzordeak antolatuta martiaren 14an Aitor Bergara EHUko Fisika irakasleak "Iraultza kuantikoa" izeneko dibulgazino zientifikoko berbaldia emon eban. Hogeit bat persona egon ziran bertan fisika kuantikoaren sekretuak ikasten.

Erredakzioa

Arratiak bizitza kultural oparoa izan arren, ez da ohikoa fisika berbaldirik topetea. "Batzordean kultur programazinoa prestatzerakoan gauza desbardinak egin gura genduzala pentsau genduan. Edate eta esparru desbardinak ikutzea: zientzia, musikea, artea... Nik beharretik ezagutzen neban Aitor Bergara eta banekian prest egongo zala" azaldu deutso BEGITURI Pedro Ormazabal Batzordekoak.

Bergarak hiru hilabeterik behin emongo ditu hainbat berbaldi. "Iraultza kuantikoa" izeneko bigarrena izan zan, lehenengoa Newton-eri buruzkoa izan zan. "Hurrengoa, maiatzean, gazteai zuzendutakoa izatea gurako geunke, tailer modukoa, praktikoa eta teorikoa buztartuz modu dibertigarri baten" dino Pedro Ormazabalek.

Kuantikoa geure bizitzan

Nanoteknologiaren bidez fisika kuantikoak geure bizitzan sartu

da. Botikak eta kosmetikoak hasi dira erabilten teknologia hau. Holan, neurriira egindako botikak sortzean dira, zelula bakar batzuen portaerea aldatuten ditue-

nak eta albo kalterik sortzean ez dabenak. Fisika kuantikoaren aplikazinoak zabaltzen diranean, honek gaur egungo industriaren iraultza ekariko dau irakaslearen esanetan.



Aitor Bergara.

DUNBA

Zeanuriko eskolea Korrikagaz bat



Zeanuriko eskolako 3. eta 4. mailako ikasleak

Heldu da 18. Korrika! Aurten martiaren 14an Andoainen hasiko da eta 24an Baionan amaituko da.

Lehenengo Korrikak 1980an Oñatitik Bilbora zeharkatu eban eta euskerearen alde antolatzen dan ekitaldirik jentetsuena eta garrantzitsuenetakoa izan zan. Bere leloa "zuk ere esan bai euskarari" zan eta gaur egun be orduko

lekukoa hartuz hasiko dau bere bidea Korrikak. Lekukoa Korrikaren lehen edizinoatik gordetzen dan zur tailauzko makila eta ikurrina dira, aurten be galapan eginez hamaika egunetan eskurik-esku ibiliko dana.

AEK da urtero moduan Korrika antolatzen dauana. Euskeraz berba egiten, irakurten eta idazten irakatsi eta euskal kulturaren sakontzeko aukerea eskeintzea da AEKren zeregina, eta egindako lana benetan goraiatzekoa da.

Korrika ez da urtero ospatzen, bi urtetik behin baino, baina 1982an eta 1983an, urte bitan segiduan antolatu zan. Korrika ez da gelditzen, gaubean be martxan dabil. Korrikaren helburua euskera bultzatzea da eta horregaitik Zeanuriko eskoleak eta Guraso Elkarteak kilometro bat erosi dau. Danok dakigunez, Korrika Arratiako herrietatik igaroko da; Zeanuritik, martiaren 21ean, 10:30ak bueltan pasauko da. Korrikan edonork parte hartu daike, adin guztietako jente euskaltzaleari zuzendua dago eta.

Aurtengo abestia "Bagoaz" deitzean da eta Esne Beltza musika taldeak egin dau, Euskal Herri guztia alaitzeko asmoz.

Animau zaitezie Zeanuriko eskolako ikasleakaz eta irakasleakaz batera Korrikan parte hartzean eta bide batez "eman diezaiogun euskara elkarri". Amaitzeko, hemen joatzue Korrikarako egin

dugun bertsoa:
Bajatorku korrika
hau bai albistea!
gura geunke bideak
atletaz jostea
guk parte hartukogu ta
hau gure eskea:
BEGITUKO irakurle
zahar zein gaztea
ederrena litzake
ZU han ikustea.



AGENDEA

MARTIAK 19

LEMOA

Apirilaren 23ra arte, Narrazino Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik.

ZEANURI

Apirilaren 8ra arte, Tinduferra erroteko jatekoak batzean dira udaletxean.

ZEBERIO

Apirilaren 7ra arte, Berbalaguna izateko izena emoteko epea. Udaletxean.

MARTIAK 20

AREATZA

19:00etan, Añibarro Kultur Elkartea eta Lamino Kirol Klubaren aurkezpena Udal Aretoan.

BEDIA

17:00etan, tailerren astea, lorak eta lorontziak liburutegian.

IGORRE

16:30ean, "Emakumeen autonomia eta autoestimurako gakoak" ikastaroa. Kultur Etxean.

UBIDE

11:00ak inguruan, Korrika pasauko da.

MARTIAK 21

ARANTZAZU

11:20 eta 11:40 inguruan Korrika.

AREATZA

10:45 inguruan, Korrika.

19:30ean, zineforuma *Los Sobornados* (Fritz Lang) Udal Aretoan. Hizlaria: Jose Angel Rebolledo. AKKB-k antolatuta.

ARTEA

10:55 inguruan, Korrika.

DIMA

12:00ak inguruan, Korrika.

IGORRE

11:30 eta 12:30 inguruan, Korrika.

Guraso alkartearen eskutik umeentzako eskularen tailerra eta herri kirolak eskolatan.

UBIDE

09:00ak inguruan Korrika.

ZEANURI

II. Enpresen arteko Topaketea Zulaibarren.

10:20 inguruan Korrika herritik. 16:00etan hasita, Korrika Txikia, txokolatea eta antxinako jolasak.

MARTIAK 22

AREATZA

19:00etatik aurrera AKKBren Bazkietza jaia: txosna, pintxo, musika eta izen emoteak Areatzako plazan. Otzara baten zozketea egingo da bazkideen artean.

Korrika jaia Laminetxe Gaztebeak antolatuta. 19:30ean, pintxo-pote (Gaztebeak be bai). 22:00etan, Korrika herrikoia herrian zehar eta txokolate beroa. Gero Izargi taldeagaz jantzaldia.

BEDIA

17:00etan, tailerren astea, lorak eta lorontziak liburutegian.

IGORRE

19:30ean, Harrera alkartearen aurkezpena.

Kultur Etxean.

LEMOA

Uraren Nazinoarteko Eguna ludotekan.

ZEANURI

Zugatz Eguna Saldropon.

MARTIAK 23

AREATZA

Zugatz Eguna. Bertako produktuen erakusketea. Parketxeak antolatuta. 10:30ean, Zugatzak landatzeko batu Iturrimaurren. 12:00etan, Karpon, "ume bat, zuhaitz bat" zugatzak landatu. Ostein, barauskarria Zugatz Egunekeo ekitaldietan parte hartu dabenezat.

BEDIA

14:00etan, kantu bazkaria.

DIMA

19:00etatik 21:00etara, tabernariak hasiko dira pintxo-potea eskeintzen zapatu guztietan.

IGORRE

19:00etan, San Josetako bertso saioa. Andoni Egaña, Miren Amuriza, Jon Maia, Iker Zubeldia. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Zugatz Eguna San Antolinen.

MARTIAK 24

AREATZA

10:30ean, Bilboko Udal Bandak, Euskalduna Jauregian 12:00etan emongo dauan kontzertura urtekerea. Autobusa eta sarrerea 3 euro. Areatzako Kultur Kirol Batzordeak antolatuta eta babestuta.

ARRATIA

Korrika amaiera festa ospatzeko autobusa Baionara. Izena Igorreko Kubulu euskaltegian emon.

IGORRE

17:00etan umeentzako zinea, *Jacobo Lobo* filma. 19:30ean zinea, *El lado bueno de las cosas*.

LEMOA

Lemoako Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urtekerea Arantzazura. Arkaitz (1.315 m), Artzanburu (1.368 m), Arbelaitz (1.513 m).

MARTIAK 25

IGORRE

11:00etan, Sexualidadeari buruzko zineforuma *French Kissers* eta Agurtzane Ormaza sexologoaren berbaldia. Lasarte Aretoan.

MARTIAK 26

IGORRE

11:00etan, musikea. Bidean Galduta, The Jeloskors, Paule Lasa eta Ane Goiene eta Musika Eskolako ikasleak. Lasarte Aretoan.

MARTIAK 29

IGORRE

19:30ean, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko kontzertuzinoa.

20:00etan, Laburbira film laburrak Lasarte Aretoan Ganorazek Igorreko Udalaren laguntzeagaz antolatuta.

LEMOA

19:30ean, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko kontzertuzinoa.

ZEBERIO

20:00etan, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko kontzertuzinoa.

MARTIAK 30

IGORRE

22:00etan zinea, *Lincoln* filma.

MARTIAK 31

IGORRE

17:00etan umeentzako zinea, *Lili, la Princesa y el unicornio*. 19:30ean zinea, *Lincoln*.

LEMOA

19:00etan, Argia emonaldia *Ilunpetik* dokumentala.



Ahatetxo Itsusia hilaren 22an 17:30ean Lasarte Aretoan

Glu-gluk ekarriko dau martiaren 22an Igorreko kultur hamabostaldiaren barruan *Ahatetxo Itsusia* antzezlan. Galder Perezek idatzita, Ylenia Bagliettok, Ugaitz Alegriak eta Gabriel Ocina taularatuko dabe ipuina. Hans Christian Andersen ipuinean oinarrituta egon arren, eguneratuta dago. Jolasak, jantzak eta abestiak aberasten dabe ikuskizuna. Prezioa 5eurokoa da, bazkideak 3,75€ eta laguntzaileak 1,5€.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

SALGAI

Haretzeko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elexalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

AUTOA SALGAI

Fiat Punto 1.2 Dynamic 5 ateduna. 8 urte ditu. ITVa 2014ko bagilera arte pasauta, 672 762 066 (Gaizka).

AUTOA SALGAI

Toyota Landcruiser-a saltzean dot. Interesdunak 615 728 940 zenbakira deitu (Pili).

DANERIK

ETXEA ALOKATZEN DOGU

Alokairuan dagoan pisu baten bila gabizan neska arratiar bi gara. Alaitz eta Maider 652 722 698.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Arrastiko ordutegian umeak jagon edo

klase partikularrak emoteko prest nago.

Kotxeduna. Interesdunak deitu zenbaki honetara 600 759 434 (Naiara) Telefonoa.

UMEEN ZAINTZAK

Umeak esperientzia daukan neska bat zuen seme-alabak jagoteko prest dago. kotxeduna (Pili 686 728 843).

GARAJEA ALOKAIURUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorreko erdigunean. 659 395 911. Luis.

BIZIKLETEA GURA DOT

Errepidean ibilteko bizikletea gura dot. Zaharra eta merkea bada, barria eta karua baino hobeto. Idatzi: sautuolabarri@gmail.com helbidera.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera San Josetako bertso saiorako.

Yazmina Beobide (Areatza)
Unai Santos (Lemoa)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Ahatetxo itsusia* antzezlanerako.

Nerea Basterra (Arantzazu)
Amaia Espinosa (Artea)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Ehizan harrapetan dan animalia.
2.- Kolore bat. Boroa. 3.- Letra bat.
Indioa. Parea. 4.- Albaniako dirua.
Birritan, gar-gar. 5.- Eredu. 6.- Txinako
budismoaren joerea. Pinu. 7.- Emea ez
dana. Berrogeita hamaika erromatar.
Bokala. 8.- Konsonantea. Ulea
apaintzeko erabilten da. 9.- Nagusia,
jaubea.

GOITIK BEHERA

1.- Bigarren bokala. Kokatu, jarri.
2.- Merkurioa. Polit. Konsonante
bat. 3.- Bor-bor egin. Musika nota.
4.- Jainkoaren izenean emoten dan
berbea. Bigarren letrea. Haga, habe.
5.- Arsenikoa. Kopuru txikian. 6.- Letra
bat. Leku batetik bestera ibilteko
lur zerrenda. Oinarrizko lau odol
taldeetako bat. 7.- Ibilaldi. Bokala.



Topau zazpi lanbide edo ofizio desbardinaren izenak.

B	R	A	K	E	T	A	R	I	A
L	A	U	P	R	A	K	I	N	A
O	I	R	A	R	K	E	A	E	Z
G	L	E	O	O	R	S	I	K	U
E	T	S	I	T	A	N	R	A	L
R	A	T	X	A	Z	E	A	Z	I
E	G	L	E	R	U	A	T	A	B
A	O	E	M	I	R	U	N	R	O
A	N	G	L	A	D	U	E	I	X
P	R	I	N	T	A	L	M	A	R
H	A	R	G	I	N	A	E	R	U
O	R	E	G	R	I	Z	R	O	L
M	E	D	I	H	U	R	R	I	N
E	S	T	A	L	E	T	E	M	A
K	A	R	I	K	O	L	I	Z	U

AKI MI KO

Iman Olatu



OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estuñox, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Tel: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

Tel: 94 631 60 05 - e-mail: info@arrotz.com

ARROTZ

Landegian 0 Jabetuen!

Berrito Ugarana 2. et. - ADRI Dena - (Bizkaia) www.arrotz.com

expert **ARRATIA**

E posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

946 319 008
658 195 091

GALANTA
zure barruko arropa

M. JOSE
barrutik janzten zaitu

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.com

www.facebook.com/galantabizkaia

RUGBY
TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako
instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasak

Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Tutak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorriko Industriales, Pol. 37
Tel. Fax 94 673 62 76
619 736 616
48140 Igorre Bizkaia

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoia

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza, Baxilergoak, Hezkuntza zirkloak

AEK-KO IKASLEAK

"Euskerea ikastea oso garrantzitsua da komuniketako eta euskal kulturea ulertuteko"

Korrikak aurten euskera ikasleak omentzen ditu. Hori dala eta, BEGITU Arratiako AEKra hurbildu da, omenduak ezagutu eta euskerearen gainean berba egiteko. Kubako Leonor Turiña, Urduñako baina Diman bizi dan Itziar Oiarzabal eta Sahararik Igorrera etorritako Kauria Ahmet izan dira gure solaskideak.

Clara Luja Azpiri

Noz hasi zinien euskera ikasten?

L.T.: Ni hona etorri nintzanean hasi nintzan ikasten. Urrietatik nago klasean. Kuban nengoan hasi nintzan euskera apur bat ikasten, banekialako hona etorriko nintzala baina hau da modu serio baten ikasten ipintzen nagan lehenengo aldia.

I.O.: Ni bi urte egon naz ikasten euskaltegian, baina txikitan eskolan be ikasi neban apur bat, ingelesa legez. Orain urte bi da roadaz euskera ikasten.

K.A.: urte bi baino apur bat gehiago daroat euskereagaz. Hona ailegau eta segiduan hasi nintzan hizkuntza hau ikasten.

Zergatik hasi zinien euskera ikasten?

L. T.: Ni, komuniketako hasi nintzan ikasten. Gainera, nik Artearen Historia ikasi neban eta niretzat sano garrantzitsua da euskera ikastea, bestela ezin izango dodalako lanik topau. Nire perfilerako beharrezkoa da euskera jakitea.

I. O.: Ba ni hasi nintzan, Euskal Herriko hizkuntzea dalako eta nire *asignatura pendiente* zalako. Hiru urteko alaba bat

daukat eta hori da nire motibazio nagusia modu serioagoan ikasteko.

K. A.: Niri euskera gustau egiten jata eta ikasi gura neban nire lau urteko alabeagaz hitz egiteko eta eskolako lanakaz eta holango gauzakaz lagundu ahal izateko.

Euskerea non erabilten dozue?

L.T.: Exean apur bat baina batez be Euskaltegian. Kanean be bai apur bat baina oraindino bildurra emoten deusta.

I.O.: Ba, Arratian jente guztiak egiten dau euskeraz eta eurekaz berba egiteko behar dot. Adibidez, eskolako batzarrak euskeraz dira eta ulertzeko dana behar da. Umeai laguntzeko etxerako lanakaz eta lanean be bai. Edonon.

K.A.: Nik kanean ez. Batzuetan okindegian eta estankotan. Alabeagaz gehiago.

Erreza ala zaila da euskera ikasteko? Zer deritxazue?

L.T.: Niri asko gustetan jataz hizkuntzak, baina egia esan euskereak ez dauka zerikusirik gaztelaniagaz eta orduan txip barria ipni behar da. Guztiz desbardina da, berezia baina nik uste dot hizkuntza polita dala eta merezi dauala interesa jartzea.



I.O.: Hizkuntza oso polita da, baina niri asko kostetan jata berba egitea eta lotsa be emoten deusta, txarto egitearen bildur naz. Askok kostetan jata.

K.A.: Niri be gustetan jata baina ez da erreza.

Zenbat ordu emoten dozue euskera ikasten astean?

L.T.: Ba ni asteleheneretik eguenera etorten naz goizero eta ordu bi eta erdiko klaseak daukaguz hemen euskaltegian. Guztira astean hamar ordu dira. Etxean be egiten dot apur bat. Nik orain ez daukat lanik eta nire lana euskera ikastea da.

I.O.: Nik be euskaltegian hamar ordu, baina etxean denpora gitxi emoten deustaz euskereari.

K.A.: Nik astean bi egun, guztira sei ordu euskaltegian. Etxean alabeagaz batez be, marrazki bizidunak ikusten eta eskolako

"Ikasleak egoteak esan gura dau interes bat badagoala hizkuntzan"

"Euskerea hizkuntza polita da eta merezidu dau interesa jartzea"

lanak egiten laguntzen.

Zergatik uste dozue garrantzitsua dala euskerea?

L.T.: Nik uste dot hizkuntzak tradizio garrantzitsua dirala herrirentzat eta nire ustez euskaldunak esfortzu handia egin dabe euren hizkuntza erreskatetako. Azken finean, euskera hemengo hizkuntza da eta etorri garrantzitsua da hau ikastea, bertako kulturearen parte bat da eta. Hemen bizi gara eta hemengo kultura osoa hartu behar dogu integretako eta abar.

I.O.: Leonorrek esan dauan moduan, gure hizkuntza da eta guk esfortzua egin behar dogu beraz hitz egiteko, galdu ez daiten.

K.A.: Garrantzitsua da hemengo jenteagaz komuniketako. Gainera, Euskal Herriak gure herriari asko lagundu deustoz eta horregaitik beti gura izan dot euskera ikasi.

Zenbat denpora uste dozue behar dala euskerea ondo ikasteko?

L.T.: Bizitza osoa! Hizkuntzak urte batzuetan ulertu ahal dira, baina ez da amaitzen ikasten inoz. Gitxieneko bat ikasten da eta gero bizitza osoa hobetzen emon behar da.

I.O.: Bai, bat nator. Beti dago zerbaist gehiago ikasteko, esaera zaharrak eta abar.

K.A.: Ni be uste horretakoa naz. **Zer egiten dozue klaseetan?**
I.O.: Ariketak, jolasak...

L.T.: Entzumenak be egiten doguz.

I.O.: Berba egin be egiten dogu asko. Eta liburuak irakurri. Gauza desbardinak. Nire ustez garrantzitsua berba egitea da, hobetzen joateko.

K.A.: Bai, eta klaseetan kantak be entzuten doguz.

Korrika moduko ekintzetan egon zarie inoz?

L.T.: Bai, korrikaren ginkanan egon ginan Bilboko alde zaharrean. Jente gitxi egon zan, baina bueno. Esperientzia polita izan zan.

I.O.: Froga batzuk egin genduzan, fisikoak eta pentsetakoak be bai. Txapela bota, itaun batzuk erantzun, inkesta bat egin edo jenteari argazkiak atera, nahikoa froga. Batzuk Korrikagaz erlazionautakoak. Gu azkenengoak geratu ginan eta Portugaletakoak irabazi eben, baina jentea oso gaztea zan.

L.T.: Gu ginkanako atso-agureak ginan, kar, kar, kar. Baina finalera joango gara Baionara, Portugaletakoak animetako edo.

Zer deritxazue Korrikak euskera ikasleak omentzeari?

L.T.: Oso ondo, euskera ikaslerik ez balego euskera ez zan izango, desagertuko litzateke. Danok gara garrantzitsuak baina ikasleak bereziki, nire ustez. Ikasleak badagoz horrek esan gura dau interes bat badagoala hizkuntzan.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

